# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-5961

215/2004 DEKRETUA, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulu batzuk indarrean iraunarazten dituena. Azken Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan.

Abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak zero eta hiru urte bitarteko umeentzako Euskal Autonomia Erkidegoko haur-eskolak arautu zituen, 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteetan.

Abenduaren 23ko 324/2003 Dekretuak, berriz, 2004/2005 ikasturtera arte luzatu zion indarraldia goiko lerroaldean adierazitako 297/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriari, eta honako hau adierazi zuen: 297/2002 Dekretuak arautu duen proiektua saiakuntza moduan jarri dela martxan, baina saiobidezko izaera hori ez dela neurri berekoa dekretuak araututako alderdi guztietan; hain zuzen ere, intentsitate txikiagokoa da titulartasun pribatuko eskolentzako laguntza ekonomikoen aurreikuspenari dagokionez –297/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian jaso eta arautu baitira–, begien bistakoa da-eta sustapen-jarduera hori 2003-2004 ikasturteaz haratago ere hedatu behar dela.

Gaur egungo lege-esparruari dagokionez, maiatzaren 28ko 1318/2004 Errege Dekretuak aldatu egin du ekainaren 27ko 827/2003 Errege Dekretua, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko 10/2002 Lege Organikoak zehaztutako hezkuntza-sistema aplikatzeko egutegia ezartzen duena. Bada, 1318/2004 Errege Dekretu horrek xedatu duenaren arabera, 2006-2007 ikasturtera atzeratu da 827/2003 Errege Dekretuaren 2. artikuluak 2004-2005 ikasturterako aurrez ikusi zituen neurrien aplikazioa. Bigarren artikulu horren arabera, hain zuzen ere, 2004-2005 ikasturtean ekin behar zioten eskumendun administrazioek Eskolaurreko Hezkuntza ezartzeari.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### N°-5961

DECRETO 215/2004, de 16 de noviembre, por el que se establecen los requisitos mínimos de las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años, y se mantiene la vigencia de determinados artículos del Decreto por el que se regulan las Escuelas Infantiles para niños y niñas de cero a tres años en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante los cursos 2002-2003 y 2003-2004.

El Decreto 297/2002, de 17 de diciembre, reguló las Escuelas Infantiles para niños y niñas de cero a tres años en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante los cursos 2002-2003 y 2003-2004.

El Decreto 324/2003, de 23 de diciembre, de prórroga para el curso 2004/2005 de la Disposición Adicional Tercera del Decreto que regula las Escuelas Infantiles para niños y niñas de cero a tres años en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante los cursos 2002-2003 y 2003-2004, expresa que la naturaleza experimental del proyecto que regula el Decreto 297/2002, no tiene la misma intensidad en todos los aspectos regulados en el mismo y, en concreto, dicha intensidad es menor en la previsión de ayudas económicas a escuelas de titularidad privada contempladas y reguladas en la Disposición Adicional Tercera del citado Decreto 297/2002, actividad de fomento cuya necesaria extensión temporal más allá del horizonte del curso 2003-2004 es evidente.

En el marco legal actual, el Real Decreto 1318/2004, de 28 de mayo, por el que se modifica el Real Decreto 827/2003, de 27 de junio, por el que se establece el calendario de aplicación del sistema educativo, establecido por la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación, dispone que queda diferida al año académico 2006-2007 la aplicación de las medidas previstas para el año académico 2004-2005 en el artículo 2 del Real Decreto 827/2003, donde se establecía que en el año académico 2004-2005 las administraciones competentes comenzarían la implantación de la Educación Preescolar.

Bestalde, 10/2002 Lege Organikoari garapena emanez, abenduaren 5eko 1537/2003 Errege Dekretua argitaratu zen; horren bidez, gutxieneko baldintzak ezarri ziren erregimen orokorreko eskola-irakaskuntzak eskaintzen dituzten zentroentzako. Errege Dekretu horrek berariaz indargabetu zuen ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretua, unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzak eskaintzen dituzten zentroek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri zituena.

Ondorioz, kontuan hartuta, alde batetik, zero eta hiru urte bitarteko haurrei arreta egiten dieten zentroek bete beharreko baldintzen erregulazioan hutsune legala dagoela; eta, bestetik, abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskolak arautzen dituenak, bere aldi iragankorra amaituta duela, egoki da eskola horiek bete behar dituzten baldintzak arautzea, baita 297/2002 Dekretuaren artikulu jakin batzuk indarrean iraunaraztea ere.

Hori guztia kontuan hartuta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuak proposatuta, Aholku Batzorde Juridikoak emandako irizpenaren arabera, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko azaroaren 16an egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Dekretuaren xedea.

Dekretu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan 0 eta 3 urte bitarteko haurrei hezkuntza eta arreta eskaintzen dieten eskolek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak ezartzea, baita abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulu jakin batzuk indarrean iraunaraztea ere. Dekretu horrek, gogoratu, zero eta hiru urte bitarteko umeentzako Euskal Autonomia Erkidegoko haur-eskolak arautu ditu, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan.

*2. artikulua.–* Titulartasuna.

Zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntza eta arreta titulartasun publikoko zein pribatuko eskoletan eskaini ahal izango da; betiere, honako Dekretu honetan zehaztutako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

*3. artikulua.–* Baimena.

1.– Zero eta hiru urte bitarteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolak irekitzea eta funtzionaraztea, orobat hori eragin duten inguruabarrak aldatzea, Administrazio-baimenaren printzipioaren mende geratuko da.

Por otro lado, en desarrollo de la Ley Orgánica 10/2002, se publicó el Real Decreto 1537/2003, de 5 de diciembre, por el que se establecen los requisitos mínimos de los Centros que impartan enseñanzas escolares de régimen general, que deroga expresamente el Real Decreto 1004/1991 de 14 de junio por el que se establecen los requisitos mínimos de los Centros que imparten enseñanzas de régimen general no universitarias.

En consecuencia, dado que se produce un vacío legal en la regulación de los requisitos exigibles a los centros que atienden a niños y niñas de cero a tres años, y que ha concluido el período transitorio a que se refiere el Decreto 297/2002, de 17 de diciembre, por el que se regulan las Escuelas Infantiles para niños y niñas de cero a tres años en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante los cursos 2002-2003 y 2003-2004, es conveniente regular los requisitos que han de cumplir estas Escuelas, así como, mantener la vigencia de determinados artículos del citado Decreto 297/2002.

Por todo ello, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación y de los Consejeros de Vivienda y Asuntos Sociales, de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y de Agricultura y Pesca, conforme con el dictamen emitido por la Comisión Jurídica Asesora, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 16 de noviembre de 2004,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto del Decreto.

Es objeto del presente Decreto el establecimiento de los requisitos mínimos que deben cumplir las Escuelas que desempeñan la atención educativa y asistencial a los niños y niñas de 0 a 3 años en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como el mantenimiento de la vigencia de determinados artículos del Decreto 297/2002, de 17 de diciembre, por el que se regulan las Escuelas Infantiles para niños y niñas de cero a tres años en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante los cursos 2002-2003 y 2003-2004.

*Artículo 2.–* Titularidad.

La atención educativa y asistencial a los niños y niñas de 0 a 3 años se podrá desarrollar en las Escuelas de titularidad tanto pública como privada que cumplan los requisitos mínimos que se establecen en el presente Decreto.

*Artículo 3.–* Autorización.

1.– La apertura y funcionamiento de las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años de titularidad privada, así como, la modificación de las circunstancias que dieron lugar a la misma, estará sujeta al principio de autorización administrativa.

2.–Eskola horiek ondokoak bete beharko dituzte, baimena lortuko badute: Dekretu honek ezarritako gutxieneko baldintzak eta funtzionamendu-arauak, baita kasu honetan aplika daitezkeen gainerako arauek ezarritakoak ere.

3.–Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio ebazpena ematea, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolak baimentzeko, sortzeko eta martxan jartzeko eskabideei dagokienez.

*4. artikulua.*– Gutxieneko baldintzak.

Zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskolek nahitaez bete beharko dituzte Dekretu honek ezarritakoak, hala instalazio eta baldintza material orokorrei dagokienez, nola eskainiko dituzten adin-tarteen araberako berariazko betekizunei dagokienez.

*5. artikulua.*– Baldintza orokorrak.

Zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskola guztiek, oro har, ondokoak bete edo izan beharko dituzte, instalazioei eta baldintza materialei dagokienez:

a) Erabilera esklusiboko lokaletan kokatuta behar dute; ezinbestekoa izango da kanpoaldetik sarbide independentea edukitzea.

b) Erabilera anitzeko espazio bat, gutxienez 30m2-ko azalera duena.

c) Zuzendaritza – Idazkaritza bulego bat.

d) Jolasgunea, urte 1 eta 3 urte bitarteko umeentzako. Gune hori mugatuta edo zedarrituta egongo da, haurren segurtasuna bermatzeko moduan. Haurrek erabiltzen dutenean, eurek baino ez dute erabiliko, eta sei unitate edo horren zatiki bakoitzeko 75 m2-ko azalera utziko da, gutxienez. Aipatutako unitateez gaineko bakoitzarentzako, berriz, 10 m2 gehiago utzi beharko da.

e) Langileentzako bainugela, haurren unitate eta zerbitzuetatik bananduta: konketa, komuna eta dutxa edukiko ditu.

*6. artikulua.*– Berariazko baldintzak.

Aurrekoez gain, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek ondoko berariazko baldintza bete beharko dituzte, eskainiko dituzten adin-tarteen arabera:

1.– Zerotik urte baterako adin-tartean:

a) Unitate bakoitzeko areto bana (30m2 gutxienez). Aretoak hainbat gune bereizi izango ditu, ikuspegiaren aldetik elkarri lotuak, haurren atseden eta garbiketarako erabiltzeko moduan.

b) Gune bereizi bat, janariak prestatzeko egokia, aretotik ikus daitekeena.

2.– Urte batetik urte birako adin-tartean, unitate bakoitzeko areto bana (30m2 gutxienez). Aretoak hainbat gune bereizi izango ditu, ikuspegiaren aldetik el-

2.– Para poder ser autorizadas, dichas Escuelas deberán cumplir los requisitos mínimos y normas de funcionamiento establecidos en el presente Decreto y demás normativa que fuere de aplicación.

3.– El órgano competente para resolver sobre las solicitudes de autorización, de creación y puesta en funcionamiento de las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años es el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

*Artículo 4.*– Requisitos mínimos.

Las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años deberán disponer de las instalaciones y condiciones materiales generales, así como de las específicas en función de los tramos de edad que vayan a impartir, que se establecen en este Decreto.

*Artículo 5.*– Requisitos generales.

Con carácter general, todas las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años deberán contar con los siguientes requisitos referidos a instalaciones y condiciones materiales:

a) Ubicación en locales de uso exclusivo, con acceso independiente desde el exterior.

b) Un espacio para usos múltiples, con una superficie no inferior a 30 m2.

c) Un despacho de Dirección – Secretaría.

d) Un espacio de juegos, destinado a niños/as de edades comprendidas entre 1 y 3 años, que estará acotado, garantizando la seguridad de los niños/as, y será de uso exclusivo durante su utilización, con una superficie no inferior a 75 m2 por cada seis unidades o fracción. Se incrementará en 10 m2 por cada nueva unidad que supere las citadas.

e) Un aseo para el personal, separado de las unidades y de los servicios de los niños/as, que contará con un lavabo, un inodoro y una ducha.

*Artículo 6.*– Requisitos específicos.

Las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años deberán cumplir, además, en función de los tramos de edad que vayan a impartir, los siguientes requisitos específicos:

1.– En el tramo de cero a un año:

a) Una sala por cada unidad con una superficie que tendrá, como mínimo, 30 m2, y dispondrá de áreas diferenciadas y relacionadas visualmente entre sí, para el descanso e higiene del niño/a.

b) Un espacio diferenciado adecuado para la preparación de alimentos y que estará relacionado visualmente con la sala.

2.– En el tramo de uno a dos años deberán contar con una sala por cada unidad con una superficie que tendrá, como mínimo, 30 m2, y dispondrá de áreas dife-

karri lotuak, atseden eta garbiketarako erabiltzeko moduan.

3.– Bi urtetik hiru urterako adin-tartean:

a) Unitate bakoitzeko areto bana (30m2 gutxienez), eskola-postu bakoitzeko 2m2 izango dituena.

b) Areto bakoitzeko bainugela bana, aretotik ikusteko eta sartzeko moduan; bertan, bina konketa eta bina komun egongo dira, haurrentzako egokiak. Bainugela hori areto bat baino gehiagorentzat izan daiteke; betiere, areto bakoitzetik ikusten bada eta bertatik sarbidea badu; halakoetan, areto bakoitzeko komun bana gehitu beharko da.

*7. artikulua.*– Hezkuntza-maila bat baino gehiago ematen dituzten zentroek bete beharreko baldintza erkideak.

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Bigarren Hezkuntzako zentroetan, zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntza eta arreta ere eskola-eraikin edo –esparru berean ematen bada, instalazio komuntzat joko dira Zuzendaritza-Idazkaritzako bulegoa eta jolastokia; betiere, jolastokia erabiltzeko ordutegi bereizia egongo dela bermatuz gero.

*8. artikulua.*– Zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskolen jarduera kokaleku desberdinetan.

Zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskolek, horientzako lokal bat baino gehiago badute, lokal horietako bakoitzean bete beharko dituzte Dekretu honetan ezarritako baldintzak, zenbat unitate eskatu dituzten eta horren arabera.

*9. artikulua.*– Beste hainbat baldintza.

0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek, Dekretu honek ezarritako betebeharrez gain, indarreko legediak zehaztutako baldintzak ere bete beharko dituzte; hain zuzen ere, higienikoak, sanitarioak, akustikoak, eta irisgarritasunari, bizigarritasunari eta segurtasunari dagozkienak.

Haur-eskolak bere jardueran beteko ez balitu aurreko paragrafoan zehaztutako baldintzak, haur-eskolako titularrari egokituko zaio erantzukizuna.

*10. artikulua.*– Lanbide-kualifikazioa.

1.– Zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskolek profesional gaituak eduki behar dituzte, adin horietako haurrei hezkuntza-arreta eta laguntza eskaintzeko prestatuak; ildo horretatik, ondokoetako titulazioren bat eskatuko da:

a) Maisu/maistraren titulua, Haur Hezkuntzako espezialitatea edo baliokidea, 94-9-30eko 1954/1994 Errege Dekretuaren (94-11-17 BOE) eta berariazko araudiaren arabera.

b) Haur Hezkuntzako goi-teknikariaren titulua edo baliokidea, 98-4-30eko 777/1998 Errege Dekretuaren (98-5-8 BOE) eta berariazko araudiaren arabera.

renciadas y relacionadas visualmente entre sí para el descanso e higiene.

3- En el tramo de dos a tres años.

a) Una sala por cada unidad con una superficie de 2 m2 por puesto escolar, que tendrá como mínimo 30m2.

b) Un aseo por sala, que deberá ser visible y accesible desde la misma y que contará con dos lavabos y dos inodoros adecuados. Este aseo podrá ser compartido por varias salas, siempre que sea visible y accesible desde cada una de ellas, debiendo, en este caso, incrementarse un inodoro por cada sala.

*Artículo 7.*– Requisitos comunes en Centros que imparten varios niveles educativos.

En el caso de Centros de Educación Infantil, Primaria o Secundaria que atiendan además el tramo educativo y asistencial de 0 a 3 años en el mismo edificio o recinto escolar, se considerarán instalaciones comunes el despacho de Dirección - Secretaría y el patio de juegos, siempre que se garantice el uso de dicho patio en horario independiente.

*Artículo 8.*– Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años en diferentes ubicaciones.

Las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años que dispongan para ello de distintos locales, deberán cumplir en cada uno de ellos todos los requisitos establecidos en el presente Decreto para las unidades que se soliciten.

*Artículo 9.*– Otros requisitos.

Las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años deberán reunir las condiciones higiénicas, sanitarias, acústicas, de accesibilidad, de habitabilidad y de seguridad, que se señalen en la legislación vigente, además de los requisitos que se establecen en el presente Decreto.

La responsabilidad del incumplimiento de las condiciones citadas en el párrafo anterior en el desarrollo de la actividad de la Escuela Infantil corresponde a su titular.

*Artículo 10.*– Cualificación profesional.

1.– Las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años deberán contar con profesionales cualificados para la atención educativa y asistencial adecuada a los niños y niñas de estas edades exigiéndose alguna de las titulaciones siguientes:

a) Título de Maestro, especialidad de Educación Infantil o cualquiera de sus equivalentes de acuerdo con el RD 1954/1994, de 30 de septiembre (BOE 17-11-94), y normativa específica.

b) Título de Técnico Superior en Educación Infantil o cualquiera de sus equivalentes de acuerdo con RD 777/1998, de 30 de abril (BOE 8-5-98), y normativa específica.

2.– Hala ere, Hezkuntza Administrazioak deitu edo homologaturiko Haur Hezkuntzako espezializazio- edo gaikuntza-ikastaroak gaindituta dituztenek edo gainditzen dituztenek, zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntza eta arreta eskaini ahal izango dute. Hori guztia, 1996ko urtarrilaren 11ko Aginduaren arabera (96.1.23 BOE), horren bidez homologatu baitira Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Berezia eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko irakasleentzako espezializazio-ikastaroak, eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko profesionalentzako gaikuntza-ikastaroak.

Artikulu honen 1. paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, ikastaro horiek egin dituzten pertsonak Haur Hezkuntzan espezializaturiko maisu/maistratzat edo Haur Hezkuntzako goi-teknikaritzat joko dira, egin duten ikastaroaren arabera.

*11. artikulua.*– Hizkuntz eskakizunak.

Zero eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskoletan lan egiten duten profesionalen hizkuntz eskakizunak bat etorrik dira zentroak duen irakaskuntza elebidunaren ereduarekin, hau da: 1. hizkuntz eskakizuna eta 2. hizkuntz eskakizuna, edo baliokideak (47/1993 Dekretua, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena).

*12. artikulua.*– Profesionalen kopurua.

Zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntza eta arreta eskaintzen duten eskolek langile gaituak eduki beharko dituzte: zenbat unitate funtzionamenduan, horrenbeste langile gaitu, gutxienez. Aipatutako unitateek, gainera, hezkuntza eta arreta eskaintzen duten haur-eskolei dagozkien ratioak bete beharko dituzte, unitate bakoitzeko gehieneko haur-kopuruari dagokionez.

*13. artikulua.*– Gainbegiratzea eta kontrola.

Zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskola guztiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Ikuskaritzaren gainbegiratzearen eta kontrolaren mende egongo dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa.***– Abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren esparruaren barruan, dekretu horrek zero eta hiru urte bitarteko umeentzako Euskal Autonomia Erkidegoko haur-eskolak arautu baititu 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan, honako hauek iraunaraziko dira indarrean:

1.– Artikuluak: 2, 3, 4, 5, 6 eta 11.

2.– Xedapen gehigarriak: lehenengoa, bigarrena, hirugarrena, seigarrena eta zazpigarrena.

***Bigarrena.***– Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako 1/1990 Lege Organikotik eratorritakoez

2.– No obstante, podrán atender este tramo educativo y asistencial de 0 a 3 años quienes hayan superado o superen cursos de especialización o habilitación de Educación Infantil convocados u homologados por la Administración Educativa, de acuerdo con la Orden de 11 de enero de 1996 por la que se homologan cursos de especialización para el profesorado de Educación Infantil, de Educación Primaria, de Educación Especial y del primer ciclo de Educación Secundaria Obligatoria y de habilitación para los profesionales del primer ciclo de Educación Infantil (BOE 23-1-96).

A los efectos de lo indicado en el apartado 1 de este artículo, estas personas tendrán la consideración de Maestro/a especialista en Educación Infantil o de Técnico Superior en Educación Infantil, según el curso realizado.

*Artículo 11.*– Perfiles lingüísticos.

Los Perfiles Lingüísticos de los profesionales de las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años responderán a los modelos de enseñanza bilingüe adoptados por el Centro, sustanciándose en el perfil lingüístico 1 y el perfil lingüístico 2, o equivalentes (Decreto 47/1993, de 9 de marzo, por el que se establecen criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad en los puestos de trabajo docentes).

*Artículo 12.*– Número de profesionales.

Las Escuelas que atiendan el tramo educativo y asistencial de 0 a 3 años deberán contar con personal cualificado, como mínimo, en número igual al de unidades en funcionamiento. Dichas unidades deberán atenerse a las ratios máximas de niños y niñas por unidad que deben reunir las Escuelas Infantiles con carácter educativo y asistencial.

*Artículo 13.*– Supervisión y control.

Todas las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años estarán sometidas a la supervisión y control de la Inspección de Educación, del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera.***– Se mantiene la vigencia en el marco del Decreto 297/2002, de 17 de diciembre, por el que se regulan las Escuelas Infantiles para niños y niñas de cero a tres años en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante los cursos 2002-2003 y 2003-2004, de:

1.– Los artículos 2, 3, 4, 5, 6 y 11.

2.– Las Disposiciones Adicionales primera, segunda, tercera, sexta y séptima.

***Segunda.***– El personal de aquellos Centros de titularidad privada que atiendan a niños y niñas de cero a

bestelako arauetan oinarritutako baimena edo funtzionamendu-lizentzia duten titulartasun pribatuko zentroetan, zero eta hiru urte bitarteko haurrei hezkuntza eta arreta ematen diharduten langileek hezkuntza eta arretako tarte horretan jarraitu ahal izango dute, zentro berean, zentroak haur-eskola izateko baimena eskuratzen duenean, baldin eta:

a) Maisu/maistrarako irakaskuntzei dagokien iraupen bereko edo luzeagoko irakaskuntzetako unibertsitate-titulua badute.

b) Dekretu hau argitaratzen den unean, 3 urtez beherako haurrei arreta egiten dieten zentroetan lanean badihardute, eta Dekretua argitaratu aurreko hiru urteetan horretan jardun badute, etenik gabe.

Goiko baldintzak betetzen dituzten pertsonak Haur Hezkuntzan espezializaturiko maisu/maistratatzat joko dira, 10.1 artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako.

*Hirugarrena.–* 1.– Dekretu honen 10. artikuluak adierazitakoa gorabehera, langileek zero eta hiru urte bitarteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskoletan egun dituzten lanpostuetan jarraitu ahal izango dute, adierazitako titulaziorik gabe ere, baldin eta azken 10 ikasturteetako gutxienez hirutan zerbitzuak eman badituzte hiru urtetik beherako umeei arreta egiten dieten zentroetan, hain zuzen ere, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako 1/1990 Lege Organikotik eratorritakoez bestelako arauetan oinarritutako baimena edo funtzionamendu-lizentzia dutenetan. Dekretu hau argitaratzen denetik aurrera, pertsona horiek bost urteko epea izango dute, gehienez ere, araudi honek eskatzen dituen titulazio-baldintzak betetzeko.

2.– Era berean, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen (otsailaren 25eko EHAA) laugarren xedapen gehigarriari jarraituz, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailak prestakuntza-ikastaroak antolatuko ditu, aurreko paragrafoan barne hartutako langileentzako. Deitutako ikastaro-kopurua aski dela ulertuko da, baldin eta deialdietakoren batean plazen %20 baino gehiago hutsik geratzen bada.

*Laugarrena.–* Zero eta hiru urte bitarteko umeei arreta egiten dieten titulartasun publikoko haur-eskoletako langileei bigarren eta hirugarren xedapen gehigarrietan ezarritakoa aplikatuko zaie.

*Bosgarrena.–* Dekretu honen ondorioetarako, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa emateko baimena duten zentroak 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolatzat hartuko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

*Bakarra.–* Dekretu hau indarrean sartu baino lehen aurkeztu, eta egun izapidetzen ari diren eskabideak, 0

tres años y que tengan autorización o licencia para su funcionamiento en base a normativa distinta de la procedente de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, podrá continuar atendiendo este tramo educativo y asistencial de 0 a 3 años en su mismo centro, cuando éste sea autorizado como Escuela Infantil, siempre que,

a) Posea un título universitario correspondiente a enseñanzas de una duración igual o superior a las de Maestro.

b) En el momento de la publicación de este Decreto esté prestando sus servicios en centros que atiendan a niños y niñas menores de 3 años, y lo lleve haciendo de forma ininterrumpida durante los tres años anteriores a la publicación de este Decreto.

A los efectos de lo indicado en el artículo 10.1, estas personas tendrán la consideración de Maestro/a Especialista en Educación Infantil.

*Tercera.–* 1.– Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 10 del presente Decreto, podrán continuar prestando sus servicios en sus actuales puestos de trabajo en las Escuelas Infantiles para niños y niñas de cero a tres años de titularidad privada, aquellas personas que, sin ninguna de las titulaciones indicadas, llevaran, al menos, 3 cursos de los 10 últimos prestando sus servicios en Centros que atiendan a menores de 3 años y que tengan autorización o licencia para su funcionamiento en base a normativa distinta de la procedente de la Ley Orgánica 1/1990,de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo. Dichas personas dispondrán de un plazo máximo de cinco años, contados a partir de la fecha de publicación del presente Decreto, para cumplir los requisitos de titulación exigidos en la presente normativa.

2.– Así mismo, y conforme a lo dispuesto en la Disposición Adicional Cuarta de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca (BOPV de 25 de febrero), el Departamento de Educación, Universidades e Investigación organizará cursos de formación para el personal referido en el párrafo anterior. Se considerará que se ha convocado número suficiente de cursos, cuando queden vacantes en alguna convocatoria más del 20% de las plazas.

*Cuarta.–* Al personal de las Escuelas Infantiles de titularidad pública que atiendan a niños y niñas de 0 a 3 años les será de aplicación lo establecido en las Disposiciones Adicionales Segunda y Tercera.

*Quinta.–* A los efectos de este Decreto, los Centros autorizados para impartir el Primer Ciclo de Educación Infantil se considerarán Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

*Única.–* Las solicitudes de autorización administrativa de apertura de Centros que atiendan a niños y ni-

eta 3 urte bitarteko umeei arreta egiteko zentroak irekitzeko administrazio-baimenari buruzkoak, Dekretu honetan ezarritako betebeharren mende geratzen dira, eta, hala bada, horien arabera baimenduko dira.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Nekazaritza eta Arrantza Sailak, bakoitzak bere dituen eskumenen esparruan, Dekretu honetan adierazitako betebeharrak egokitzeko irizpideak eman ahal izango dituzte ikastetxe batzuentzako; hain zuzen ere, eskola-ezaugarri bereziak edo berezitasun soziodemografikoak dituzten biztanleriei arreta egiten dietenentzako, edota, landagune edo hirigunetan egoteagatik, ezarritako baldintzak betetzea zail zaienentzako.

***Bigarrena.***– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuak ahalmena dute honako Dekretu hau garatu eta gauzatzeko beharrekotzat jotzen dituzten xedapenak emateko.

***Hirugarrena.***– Indargabetuta daude Dekretu honetan xedatu denari aurka egiten dioten lege-xedapen guztiak, maila berekoak zein baxuagokoak.

***Laugarrena.***– Honako Dekretu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko azaroaren 16an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

ñas de 0 a 3 años, presentadas con anterioridad a la entrada en vigor de este Decreto y que estuvieran tramitándose, se someterán y autorizarán, en su caso, de acuerdo con los requisitos establecidos en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación y el Departamento de Agricultura y Pesca podrán, en el ámbito de las competencias que tengan atribuidas, establecer criterios de adaptación de los requisitos indicados en el presente Decreto para los Centros que atiendan a poblaciones de especiales características escolares o sociodemográficas, o cuya ubicación en zonas rurales o urbanas consolidadas dificulte el cumplimiento de los mismos.

***Segunda.***– Se autoriza a los Consejeros/as de Educación, Universidades e Investigación, de Vivienda y Asuntos Sociales, de Justicia, Empleo y Seguridad Social y de Agricultura y Pesca para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

***Tercera.***– Quedan derogadas todas las disposiciones legales de igual o inferior rango que se opongan a lo establecido en el presente Decreto.

***Cuarta.***– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de noviembre de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.